

Añanako 3 ikastetxek landu dute bertsolaritza eskola ordutan

Oihane Perea, Arabako Bertsozale Elkarteko irakaslea, klasea ematera etorri da 3 ikastetxetara. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak izan dira. Gu ere bertsolari programan parte hartu dutenak. Gobia eskolak, Unamunzaga eskolak eta Jose Migel Barandiaran eskolak hartu dute parte.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide batez hainbat bertso emanaldi burutu dituzte klasean prestatutako bertsoekin; MUSIKA, KULTURA, HITZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK landuz.

Ekainaren 6an ikastetxe guztien topaketa burutu genuen Iruñea Okako kultur etxean. Bi bertsolari gaztek bat-bateko saioa eskaini zuten eta talde bakoitzak ikasturtean landutakoaren lagin ederra eraman zuten. Ederra benetan ikasturtea denek batera amaitzea. Uda ona pasa!!!



Leku ezberdinetara eta entzule ezberdinengana heldu da ikasturte honetan bertsolarien ahotsa. Bertso tailerra ere izan da Euskaltegiko ikasleekin udazkenean. Hona hemen aurtengo saioak:

2013/10/19 Kuartango

Bertsolariak: Iñaki Viñaspre, Ander Solozabal

Balnearioa. Plaza librea

2013/11/30 Antezana

Bertsolariak: Ruben Sanchez, Paula Amilburu

Iñurrita Elkarte. Bertso-afaria

2014/06/06 Iruñea Oka

Bertsolariak: Iker Pastor eta Jon Ruiz de Pinedo

Kultur etxea. Ikastetxeen topaketako saioa



AÑANAK ahots propioa kuadrillartekoan



Arabako bertso koadrilla artekoa ospatu da aurten bat-batekan eta idatziz

Urtarrilaren 18tik hasita eta hiru hilabetez zehar bertso gintzan parte hartzea izan du helburu nagusia. Ondo bete du helburua, izan ere, bat-bateko 15 taldeek 19 saio antolatu dituzte eta bertan ere idatzizko 18 talde ere parte hartu dute

Arabako Kuadrilla guztiek hartu dute parte, tartean Añanak baita ere, **Euskara Añanan mingainean elkarteko euskaltzaleen bertso-sorta kolektiboaren bidez.**

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
AMAIA ZENTROA

Benito Perez Galdós z/g 01002 tel: 945 010505/

e-posta: araba@bertsozale.com

www.bertsozale.com/araba